ciotçoten etchatu,
eta hunela cioten
carriquetan cantatu.
Vngui ethorri çarela,
o propheta handia,
ungui ethorri ceruetic
laincoac egorria.
Hierusalemgo hiria
hassi cen altaratcen,
eaćer Spantu edo,
miraculu handi cen.
Guztiz altaratu ciren
hirico naussiac:
ileen ematen [illegible]
hain [illegible]
4 [illegible] templutic
khassa[illegible]
S[illegible] hartu
cuen [illegible]
guibeletic [illegible]
gendearen os[illegible]
Mercatariac cituen
gauça saltcen aurkhitu
açote batez cituen
guztiac handic khassatu.

Hunela hassi citçaien
hitzten coleraturic,
Jaincoaren alderaco
Zeloac alchaturic.
Çoharte ilkhi caitezte
o ahalque gabeac,
ilkhi caitezte templuen
o profanatçailleac.
Jaincoarenen othoizteco
ordenatu etchea,
ohoin gaiztoën duçue
cuec eguin lecea.
Coazte ilkhi caitezte;
eta berce lekhuric
bilha eçaçue ceuen
tratuen eguiteco.
Guero aldare aitcinean
belhaunico iarricen:
eta devotione handiz
aita othoiztu cuen.
Akhabatu cuenean
bere othoitz saindua;
[illegible]ncen gendeari eguin
[illegible]predicua.
[illegible]deac cituen haren



hitz ederrac miretsi
cerzatic mintcatu baitcen
guztiz miragarriqui
Guero ekharri ciotçoten
aitciñera eriac
eta bidaldu cituen
Sendaturic guztiac.
Miralullu hartçaz, ciren
guztiac espantatu,
eta haurrec leheneco
oihutchoac doblatu.

5. nola pharisauac çitcaizcon.

Obra handi hautcaz ciren
pharisauac bekhaizten
ceren berec ezpaitçuten
halacoric eguiten.
Haurtchoac cituzten ichil
citecela manatu,
eta beguirra cegocan
gendea mehatchatu.
Batari cioten begui
ceiharrez beguiratcen,
asqui ciotela bera
aiherta erracusten
Salvatçailleac beguien

ikhussiric damua;
aditcera eman ceroën
bere sentimendua.
O Pharisau hippocritac
cuen eguin hautchoac
manatu tutcue ichil
daitela tipigac.
Nic utsuec diotcuet bada ecen
hauc badire ichiltcen,
harriac direla ene
favore mintçaturen.
Mehatchu hau cutenean
pharisauec aditu,
templutic ciren bihotz min
handirequin partitu.
Saluatçaillea han bera
gueldditu cen bakharric,
bihotça tristeric, eta
gogoëtaz betheric.
Arrats artean egotu
cen templu barnear
guero lekhorera ilkhi
cen illhun nauarrean.
Hiritic ere ilkhi cen
ecen bere etchera,



nihorc ere gombidatu
etçuen etcitera
Hala launari citcaizcon
pharisauac bekhaiztu,
hala cioten hirico
gendea mutiñatu
Bañan hauc guztiez etcen
deus ere cer miretu [xi],
hec berec behar dutenaz
gueroz gurutcaraci.
passione Sainduaren gaiñean
canta aste Sainduan.
1 pharisauen invidia Jesus-
Christoren aldera.
Passione Sacratua
nahi nuque cantatu
ahairea cuc ceronec
Jesus iracats dacu.
Pharisauec cerotçuten
ekharri invidia,
ceren ematen citçaitçun
ohore merecia.
Elkharrequin eguin çuten
herrossaec accordu,
cur gurutçatura behar
cinturztela altchatu.

2 Caiphassen conseillua.

Caiphas handia hassi
cen hunela mintçatcen
heriotce cruelerá
Cintuela juiatcen

Gu cer hari gare gende
sentimendu gabeac?
ceiñec utzten baititugu
galtcera ohoreac?

Jesus nazarenoac du
obra hañitz eguiten,
gende guztia duela
beretçat irabazten.

Gure ohoreac doaz
egun oro galduaz,
eta haren contrara
bethi auantçatuaz.

Gende guztiac aurkhi du
prophetatcat harturen,
gure erréguetcat caicu
guztiei alchaturen.

Orduan ethorrico da
erromaren ostea,
suntsitcera Iudeaco
natione noblea.



Ea beraz pensa çagun
ea cer hari garen
erremedio ematera,
guztiac essaia gaiten.

Norc daritçat hobe dela
hura bera gal dadin
ecen haren gatic gende
guztia honda dadin.

3 nola presso harauaci
çuten.

Caiphassen conseillua
ona juiatu çuten,
presso har aracitceco
moian billhatu ciren.

Diruz corrumpitu ciren
haren espensaria
ceñac mussu batez saldu
baitçuen naussia.

Baratcetic daramate
soldadu hiratuec,
ardiantchá mansoa nola
otso errabiatuec

Ohoiñ baten guisa altchatu
çuten socaz lothuric,
eta cedrongo ibidean
bassan herrestaturic.

Lehenic eraman cuten
anassen aitciñera
caiphassen guinharrua (aitinarreba)
caparriaren etchera.
Anassi ceren eguia
ihardetsi cioen
Sehi lausengari batec
abursecoz io cuen.
Han cuen Jaun doni Petre
valentac arnegatu,
oillar erneac cueneco
hiruretan cantatu.
Handic guero eraman cuten
caiphassen etchera,
asco burla et trufa
gauaz recebitcera.
Biharamunean cuten
cortean presentatu,
Iugearen aitciñean
falsoqui accusatu.

4 nola pilatussec libratu nahi cuen

Pilatussec innocenta
libratu nahi cuen
ceren hequin invidia
ecagutu baitcuen.



Juduec etcuten nahi
halacoric aditu,
Barrabas ohon gaxhoa
nahiago libratu
Urricalduric utcico
ouela ustean,
acotera condemnatu
cuen harron batean.
Burreu cruelec erauntsi
baciotén indarrez,
Suarotcec burdinari
nola landu beharrez
Corputz guztia cioten
acoteez larrutu,
eta bisaia ederra
odol uriz itsustu
Burutic oinetarano
bethe cuten uspelez,
ecaguin etcen becala
çauri eta odolez
Burura eman cioten
elhorrizco khorōa
eta burlaz escuetara
elhorrizco Sceptrona.
Pilatussec guisa hartan

ceroën presentatu
hala ere nahiago
gaiztaguina libratu
5 nola pilatussec azkenean condemnatu
çuen

Iugeori cegoëla
ez iaquinez cer eguin,
meatchu handiareguin
hitça cioten eguin
Pilatus, etsi eçacu
Jesus condemnatcera
edo ezperen caudecen
cargutic ilkhitcera.
Pilatussec ez galceco
bere cargu handia,
gurutcea gorara çuen
condemnata messia.
Aarrasta eman beçala
Sonbera gurutcea,
eman cioten orduco,
nola baitcen leguea
Behin erzar, guero altcha,
urratsi aitciñera
ecin eguinez, queldditcen
citeain guibelera



Centil batec hartu cuen
haren orde habea,
guero ere hec emanen
artan bere sedea.
Gaixtaguinen puniteeco
costumatu mendian,
gurutcean eman cuten
bi ohoñen erdian.
6 nola gurutcean hill cen
Cauri handictaric cen
hurren odolez hustu
bihotca citcaionean
Iaun onari flaccatu.
Egarri cela cerocen
erran Iudu gaiztoëi:
miagrea presentatu
haren ezpain Sainduei.
Doloreez content gabe
escarniatcen cuten
gurutcetic iauts cedilla
baldin Iongoico bacen
Sentituric hersten cela
haren azken orena
Ioannessi cioën bere
gomendatu ama ona.

Hirur orenez tormenta
handitan egotu cen,
hequiñ buruañ arimac
guero eguin civën
Hunela cuten Iaun ona
Iuduec hillaraci,
hill cenean ere Iançaz
saihetsa passaraci.

7 nola creatura guztiac tristatu ciren.

Creaturec hartu çuten
haren causaz dolua:
goibel belcez estalia cen
ceru planetatsua.
iguzquia illhundu cen
illhargiua itsutu:
ceruco icar arguiena
tinta leguez bilhatu.
Harriac erdiratu ciren
cantoin guztietaric,
saindu en gortputçac ilkhi
bere hobietaric.
templuco tapiceriac
eguin ciren bi çathi,
eta cobrezco atheac
gonderaric irauci



airean aditu ciren
auhen eta plaiñuac,
itsas çabalean ere
marrasca eta oihuac.
Iudas gaixtoa ere cen
damuz desesparatu,
cuhaits batetaric cuen
bere burua urkhatu.
creatura guztiec çuten
damu hartu fiñean,
cergatic salvatçaillea
itçatu cen habean.

8. nola ehortci cen.

Joseph arimathiarrac
escaturic congia
habetic iraunsi çuen
Iaun onaren lohia.
aromatez gantçuturic
thomba eder batean,
ehortci çuen beretçat
eraguin cuenean.
Iuduec eçarri cuten
sepulturan guardia,
disciputuec gauaz altcha (alta
etceçaten lohia.

Hilletaric biztu cela
gendetan etcerraten,
laido guehiagorequin
hala gueldi etciten.
guztiarequin alferric
hambat penatçen dire
hirurgarren eguneau
ecen biztuco caie.
Cure pasionearen
hauche da historia,
equidaçu, Iauna, hartçaz
baliatceco gratia.

Gurutcearën orenac. (onerac)

Gurutcearen cantatu
gogo ditu orenac,
Jesu-Christo entcunt çatçu
ene triste auhenac.
Eta dietçaquidatçu
barka neure hobenac
dignequiago detçadan
banka haren omenac.
Gautinā gau erditsu
bethi haren hartua,
aitaren çuhurtcia, eta
eguia eçagutua



Discipulu propiolc
etsaiei largatua,
eta diruz erossiric
Iuduec penatua.
Primamarguitu cenean
Jugearen etchera,
Ioan cinturzten, lekhucoez
gaizqui accusatcera
Bi escuac guibelān
lothuric cehatcera
eta bisaia ederra
thuca desbistatcera.
tertia da bederatei
oren, dehadarrari
eman cioten, cu itca
cinaquizcon curari
tresna ederrac ciotçoten
Iauntci cure Joñari,
bai arrantcerio Khorsa
buru Sacratuari.
Sextan amabi orenetan
cinturtan gurutcatu,
eta Saihetseco ohvin
bien pare juiatu.
Egarria cerotçuten

Khelder minez hecatu
bekatuen khentçaillea
hala cinen tratatu.

Nonan hirur orenetan
ceure aitari arima,
gomendaturic hil ciñen:
hau cen bada lastima!

Lançac erdiratu cuen
saihets iustuaren,
lurra ikharatu, eta
gau billhatu eguna.

Vesperetan ciniturten
irauntsi gurutcetic,
Joseph arimathiarra
congia escaturic.

Hala ioan ciñen bicitce
emaillea mundutic,
eta ahoz gora egotu
guero sorho gaiñetic

Completetan illhuntcean
gantuturic hobira,
Joseph eta Nicodemec
eman cuten berrira

Orduan cen equietan
frogatu escritura,



historia aiphatcean
norc eztugun latztura.

Cure passionearen
cantatu tut orenac,
Jesus Christo, entcun çatçu
ene Kats beherenac.

Eta dietçaquidatcu
barkha neure hobenac,
gora detcadan ontassun
cure hilltcearenac

Gurutcearen ohoretan canta
gurutcearen bestetacotz.

Cantaz noa erratera
Jauna hilltcen habea
itcez, lancaz, gucis, harmaz
eta arrancez bethea.

O Jesus bidegabequi
Juduec hartan emana,
eguidacu haren ungui
aiphatceco dohaña.

O gurutce sacratua
bi belhaunez curetan
devotionez jartcen naiz
belhaurico oiñetan

E recibitçacu othoi

ene laudorisac
ez ican arren ohore,
curéen doiecoac.
Desertuan çu cintuen
moisec figuratu,
calvariaco mendian
çu Juduec landatu.
Cure bistac sendatcen tu
doloratu eriac,
ifernuco suguearen
eztenac assiquiac.
A damec hutsequin cuen
cuhaitz baten oiñean,
erremediatu cen hutz
hura cure gañean
Çuc ekharri darocuçu
biciaren fruitua,
arima gossëeli eman
cuc saciamendua
Heriora zen içatu
cuçare herioa
gure cauri etaplaquen
cu erremediva
Sathani berebihotça
cuc diçu harritcen,



cure señale berac du
urruitira haicatcen
Perilletan çu caitugu
erredolatçat hartcen,
cure guerricean gaiteco
sathani defendatcen.
Ainguera hilltcaillea
darve barkhatuco,
ceñen bekhoquitan baitu hei
merca hau aurkhituco.
Merca hau bera aguertuco
da ceru urdinean,
salvatcaillea iuiatcera
asserreric iaustean
O oliva baquezcoa!
guiçonac çuc ditutçu
ainguera eta archangelu
saindvequin baquetu.
Çure itcalerat heldu
dire desolatuac,
han aurkhitcen turte bere
nequeen descanzuac.
Bassatuac çuc ditutçu
bide onera itcultcen
ceruetara christauac,

cuc escutic guidatcen.
Cuc erici darocu
bihurtcen ossassuna
gabeei cuc, escas duen
ematen ontassuna.
Cuc idequi darotçucu
ceruco portalea,
cuc hautsi lymboëtaco
presondegui tristea
O cuhaitz benedicatua!
cembat baitu erraten,
errateco guehiago,
gogora çait ethortcen
Jesus onac çu cintuen
lassan bere soiñean;
cure gañean etcin cen
guretçat soffritceau.
Haren odolaz içatu
care ihintztatua
haren miembro sainduez
çu benedicatua
Ceru, lurreco puchantçac,
curi cairguitçu khurtcen:
erreguè, eta princeec
curi agur eguiten.



Cu capitaiñec caiturte
ekhartcen libraietan
monarcha eta duqueec
cu bere khoroëtan.
Cure baithan dire christau
guztiac gloriatcen,
cure baithan dute bere
esperantça ematen.
O lymbaneco alcifre
ihartcen etçarena
eta arramu ozpriñaren
ahalque etçarena.
Ifernuco haiceac çu
etçaitu iharrosten,
haren tormentec lurrera
nihoiz ere ez etchatcen.
O arbola sacratua
oihanetan cureric,
egundano ezta içatu
ez içanen pareric.
Cuc haica diecadaçu
ifernuco belea,
ene ariman eztegan
eguin bere ohatcea.
Cu beguietan harturic

Parabisu Saindua,
irabas decadan christau
penatuen portua.
Han guero ikhus decadan
Jesus hartan etcina
eta errenda diocodan
esquer ahal equiña.

Jesus-Christoren hilletaric biztearen-
gañean bazcoalz.

Canta.

Alba gorria aguertcen
hassi cen orenean,
habarrots handi equin cen
thombaren saihetsean (sahiersean)
Lurra ikharatu cen, eta
airea iharrossi,
soldaduac iciturie
auiatu ihessi.
Orduan salvatcaillea
piztu cen hilletaric,
ceruetaco bidea
arimei libraturic.
Nola iguzquiac baitu
iragaiten beriña,
nihon ere equingabe



tarte, edo hirisquiña
Jaun mansoac hala cuen
iragan ilharria,
nihon ere hautsi gabe
gaiñeco estalquia.
nola aingueruac piztu cela
mariac seguratu cituen
Andre onac cioacen
tristeric baratcera,
unguentu onez Jaunaren
gorputça gantcutcera.
Ainguerua bathu caie,
thombaren escuñean,
morroin gazte cortez baten
iduri ederrean.
Ospiñac leguez cioën
arguitcen bekhoquiac,
eta tresnec ere onhesten
nola elhur churiac.
Sepulturarat andreac
direnean hurbilldu,
hitz cortes hautçaz bacaie
ainguerua mintçatu.
Andreac norat coazte?
cuec galdu duçuëna

pitztu da ikhus acue
Sepultura barrena
thomba harri bera nahi
darotcuet irauti,
catozte ikhus acue
etcaiteztela ici.
Huna non den mihissca
huna oraiño lumacsa
ikhuzecacue nola
Sepultura den hutsa.
Eztuçue unguenturic
cerentçat gantcutceco,
ecen biztu da, ez nihoiz
guehiago hilltceco.
Andreac behatu çuten
thombaren barrenera,
eta equiac aurkhitu
erranen aravera.
2. nola ainguerua manatu cituen
apostoluei berria ekhar citen (çaieten)
Ainguerua guero erran
ceroën andre onei,
coazte errotecue
haren apostoluei.
Guztiz ere erroçue



berri on hau Betriri
tristecia guehiago
ez temon gogoari
Hequin Naussia biztu
dela hillen artetic
gloria, eta triumpha
guztiz handiz betheric.
Galilea bere herri
maitera doacela,
hilletaric bitztua, han
ikhussico dutela.
3 nola apostoluei berria condatu
ceroën
Andre onac berri hautçaz
guztiz ciren paguatu,
eta Jaunari esquerrac
ciotçoten bihurtu.
Hierusalemgo hirira
berriz bihurtu ciren,
eta apostoluei berri
hau condatu ceroën.
Lasterca ciren Piarres,
eta Joannis partitu,
Joannis gazlea ordean,
Piarressi aitcindu

Hec ere thomba barrena
ungui miratu cuten,
baiñan Jaunaren gorputça
han ediren etçuten
nola Jesu-Christo bera aguertcen
hassi citçaien.

Iauna aguertu citçaion
Sarri bere amari,
guero Magdalena andre
bere pœnitentari.

Guero Jaun doni Petriri,
guero disciputuei
Emaüs eraco bidean
aurkhitu cituenei.

Aguertu citçaien ere
guztiei azkhenean,
Juduen beldurrez
ceudecela batean.

Nola San thomassec piztu cela Sinhetsi
nahi etçuen.

Thomas Sinhetz gorra etcen
orduan han aurkhitu,
Salvatçaillea piztu dela
eztu nahi aditu.

Eztut nahi, dio, Jauna



piztu dela Sinhetsi
baldin ezpadetçat haren
cauriac beguietsi.

Hari ere Jauna aguertu
citçaion handic Sarri
eta lançaren cauria
escuz uqui arazi.

Sinhetsi cuen cauria
uquitu cuenean;
Jaunac erantcuqui eguiñ
guztien aitciñean

Thomas Sinhetsi duc orai,
ceren hire erhiac
uquitu dituen ene
gorputceco cauriac.

Nic, diotsat, bada hura
daitequela dohatsu,
ez ikhussi arren, ceiñac
Sinheste emanen baitu

San thomassec eçagutu
cuen bere hobena,
eta Jaunari escatu
barkhamendu harena.

## Juduen Sinhets gortassuna

Iudu gaiztoac dirade
are Sinhets gorrago,
San thomas, Jaun mansoaren
disciplulua baño.
Jauna biztu dela balere (baere)
eztute nahi Sinhetsi,
haren biztu fama ere
nahi dute chortci.
thombaren inguruan cen
Soldaduen guardia,
corrompitu nahi dute
escañiric Saria.
O nobleac erraçue
gauaz lo cauntçatela,
disciplulec thombatic,
aldaratu dutela.
Erraçue hala dela
ez gu desohoratceco,
huna hurre, huna cillhar,
harma eder erosteco.
Iudu herrossoac ciren
hunela emplegatu,
Salvatçaillearen biztu
fama nahiz itçaldu.



## Juduen contra coplac

O herrossac, etcen asqui
gurutcean hiltcea.
ondotic idequi gabe,
oraño ohorea?
Etstaitçue oraño asqui
gogoa Saciatu?
guibeletic ere nahi
baitcaizcote aspertu?
Ceri hain berce caizcete (çaizcote)
Sinhets gorrac penatcen?
Suac den lekutic bethi
norabait dic ilhitcen? (ilkhitcen)
Biciaren emailleac
eztu bada puchantça
thombatic iraiquitceco
hillic datcan gorputça?
Piztu duc bada ez nihoiz
guehiago hiltceco,
piztu gloriaz betheric
cerura igateco.
Ainguerù Sainduec dic
la banatu berria;
maria Sainduec haren
ikhussi illarria.

Sinhets ecaçue cuec
orobat piztu déla,
eta aithor ecaçue
huts eguiñ ducuela.
Haren pizteaz carete
hala progotchatuco,
eta arhen eguneán
glorioso piztuco.
Arren bada Jesus-Christo
gloriosqui piztua,
eguiqueguçu glorioz.
cu pituqui donua.

Jesus-Christoren pizteáren gañean
Bazcocotz berce canta.

Ea guiristiñoac Bazco
eguneán pitz gañen, (gaiten)
egun unec berac gaitu
hartara gombidatcen.
Arqui caquiac orobat
gombidatcen gaituzte,
cergatic bere dolua
egun utci baitute.
Iguzquia nahi beçain
goiçic ezta aguertu,
albagorria ere ez nahi



beçain sarri urratu
Lehor tristea ere da
paqutu miragarri,
cergatic baitcaio bere
articarra goiz ilkhi
O cuci handia, cure
adatsáren izpiac,
thombatic illkhitcen dire
nola urreizpiac.
Chucatcen darozquigute
bere arraiez bequiac,
iguzquiac hala nola
errepira bustiac.
Cure hilltceac tristetu
cuen mundu guztia
arqui çaqui berec çuten
hartu dolu handia.
Egun berriz dacusquigu
direla allequerratcen,
ecen dolu belca dute
arquitara mudatcen.
O iguzqui clara, nihoiz
ecare goibelduren,
aitcitic bethi arraiqui,
caizquigu aguerturen.

curetçat ezta içanen
neguric nihoiz ere,
aitcitic Dembora eder,
eta uda bethiere
O phœnix Saindua egun
bitztu care gazteric
ceruetan biçitceco
bethi gloriosoric.
(han) Hauc bethi içanen duçu
gaztetassun gordiña,
han bethi allegueraqui
eramanen adiña.
Guri ere eguiqueguçu
arren othoi gratia,
han berean passatceco
bozqui berce bicia.

nola Bazco egunean prophetiac complitu ciren. bazcocotz hirurgarren canta.

O Iaun noblea egun da
guerthatu eguietan
Iudu gaixtoeï errana
ceure predicuetan.
Cuc cinduela templua
lurrera etchaturen,
hirur egunean buruan



lurretic alchaturen.
Ihardetsi cuten nola
eguin ahal daiteque?
eguiten egotu denaz
queroz berrogoi hurthe?
Iuduec aditcen cuten
Salomonen templuaz,
eta çuc Salvatçaillea
ceure gorputz Sainduaz.
Hala çure errana da
eguietan guerthatu,
hirur garen egunean
ceren baitçare piztu.
Ifernuaren çu çare
içatu assiquia,
heriotce cruelaren
cu herio handia.
O rain çaio bere bihotz
Urgullua ematu,
cergatic baitutu çure
indarrac ecagutu.

ooooo
ooo
o

Jesus-Christoren ceruetara igatearen
gañean Jaundoni Saluatorecotz,
Canta.

Cerua, idequi çaçu
urrezco portalea,
eta ohorez errecibi
Jaincoaren Semea.
Ainqueru archangeluac
Jar çaitezte herruncan,
baita cuec Seraphinac
edergui ordenantçan.
Bat bederac emocue
cur caion ohorea,
ecen igatera doa
Victoriaz bethea.
Mundu behere hunetan
eztu ceren berandu,
ecen aitaren manuac
obretan eman ditu.

2 Partiadan erran cituen hitçac

O libetcho mendiaren
garaitera dadiñan,
ama eta apostoluei
azken hitçac han erran.
Maiteac ecin nagoque



cuequin quehiago,
ecen egoteco eztut
epphea luceago.
Cerura igan behar dut
aitaren escuñera,
karitate handi idugui
çaçue elkharren aldera.
Coazte eta predica
çaçue batismua,
eta cerutic ekharri
dudan legue Saindua.
Aithorcen dut coaztela
munduaren artera,
ardiantchu mansoac nola
otso gosseen menera.
Gaiztoec usteco dute
Sendagailla handia
eguin duquetela, cuei
eguiteac gaizquia.
Pena suerte guztiez
caituzte nekhaturen,
ceruetan dire cuen
nequeac pagaturen.
Badaquit ene solas hauc
caituztela larritzen
(catiuz)

patientia darotcuet
hargatic gomendatzen
A diu beraz ene maiteac
animoso careten,
ceruetan çuentcat dut
nic ere othoiz eguinen.

3 nola apostoluac tristetu ciren.

Guztiac ciren hitz hauquin,
entçuteaz tristetu,
beguictaric citçaien
nigarra auiatu.
O gure dohaccabeac,
(damuz erran cioten)
nola bicitcea dugu
cu gabe eramanen?
Eemachurch içanen gare
munduco bicitcean;
etcaituguñaz querroztic
içanen Saihetsean.

4 nola consolatu cituen.

Ezta hala içanen
ceroën ¦aun iustuac erran
consolatuco caituzte
Spiritu Saindua.
Cerutic ethorrico da



cuen consolatcera,
eta behar den guztiac,
cuei iracastera.
Asco gauça nuquelaric
cuei declaratceco
hargatic eztarotcuet
batere aipphatuco.
Complitçaquetçue bada
haren erran guztiac,
eta munduari conda
ene obra handiac.

5 nola partitu citçaien.

Adiu beraz, ene Ama
guztiz onhetsia,
adiu ene apostolu
maiteen Confraria.
Karitate handirequin
cituen bessarcatu,
guero airean gora cen
igaten auiatu
Beha egotu citçaizcon
apostolu guztiac,
baiñan estali ceroën
Sarri hedoi lodiac. (loiac)
Ceruetan Sarthu eta

ainguerruen ostea,
aitciña ethorri citçaion,
bozcarioz betheа.

Guztiec eguin cioten,
agurra beherera,
eta aitac tchorobat
eman buru gaiñera.

Ohorezqui iararaci
cuen bere escuñean,
oraiñ gure arartеco
dago haren aldean.

6 nola ainguerubat consolatcera
ethorri citçaien

Ainguerua sarri iautsi
cen ceru (certu) goretaric,
apostolu tristatuen
consolatceagatic.

Hunela hassi citçaien
nigarsuei mintcatcen,
bere dolua ahalaz
cerоëla arintcen.

O apostoluac, ceri
cagotçote beguira?
oraiñ igaten ikhussi
ducuena goitira.



Berriz ere iautsico da
munduaren fiñean,
sententia emateco
hil guztien gaiñean

Consola caitezte beraz
cuen gogo tristetan,
eta bethiere bici
esparantça onetan

Chukha etçaçue nigar
horiec begietaric,
eta suspira horiec
athera ahoëtaric.

Coazte, itçul çaitezte;
hierusalem hirira,
Spiritu sainduaren
han caudete beguira.

Consolatuco çaituzte
hare hare guehiago,
baita cer behar duçuen
eguin iracatsico.

Apostoluac hirira
handic ciren bihurtu
Spiritu sаindua iauts
artean han egotu.

O Jesus ceruetara

triumphantqui igana
ceruetara igateco
eguiguçu dohaiña

Spiritu Sainduaren iautstearen gaiñean

Pentecostecotz

Canta

Apostoluac ceudecela
elkhargana billduric,
Iudu gaiztoen mehatchu
handiec icituric

Khar handirequin othoizten
cuten Jainco justua,
bidalcieçen aguindu,
Spiritu Saindua.

Soiñu handi bat eguin cen
Supituqui airean,
eguin ohi den beçala
tormentaren sartcean.

Orduan jautsi citçaien
buruen gaiñetara,
Suaren kharrezco mihi
batçuequin guisara.

Bere bihotz icituac
cerosten animatu,
eta mincatçaille eder



cituen errendatu.

Animosqui ilkhi ciren
hirico placetara,
eraiteco Jaincoaren
hitça bihotcetara

Orduan hierusalemen
cen nationetaric
ceruaren azpian cen
mota guztietaric.

Miretsiric hassi ciren
alhobatez erraten,
guiçon hauc nola çaizquigu
gueure mihiz mintçatcen?

Eztire galileaco
hauc guztiac semeac;
nola bada daquizquite
gure hitz eguiteac?

Mundu bazter çabalera
guero ciren banatu,
norat ere baitcituen
Jaincoac inspiratu.

Jesus-Christoren leguea
han predicatu cuten,
asco arima onera
itçullaraci çuten.

Handiei minço citçaizten
seguranças betheric,
eta errepustac ematen
gogoëtsi gaberic.
Hequin heldu citçaien
azkenean colera,
ecen guztiac cituzten;
condemnatu hiltcera.
Tormentetan etcitçaien
animoric faltatu,
spiritu sainduac hala
cituen animatu.
Arren bada espiritu
animo emaillea,
verthutera cuc animaç (tu)
(çaçu) chahu bihotz enea

---

Sacramendu sainduaren gaiñean besta
berricotz
Canta

O Jesus maitatcecoa,
orcegun arratsean
afaldu cinen hamabi
apostoluen artean
Oguia hartu cinduen
escou sainduetara,
eta arnoa issuri
cilharezco thaçara
O! maitea ciñaroën
erran apostoluei,
beguira diecęçue
escutan tudan gaucei.



Hau da ene gorputça hau
berriz ene odola,
eztecacuela eguiñ
dudaric hala eztela.
Hautaric çaitezte ene
mahaiñean sasia:
hauc emanen darotçue
seculaco bicia
Hitz hauc erran beçain
oguia haraguira
itçuli cen, eta arnoa
cure odol garbira.
Campoco itchura baicen
etcit çaien gueldìtu,
barrena cen odol eta
haraguira mudatu
Orduan eman ciñaroën
ceure azkhen bahia
nola herstu baicen çure

heriotce larria.

Ecin eman ciniecequen
Jaun noblea, joiaric,
ceure gorputz Sainduua baiño
preciatuagoric.

Banquet hartçaz sasiatu
ciren apostoluac
goçatu cituzten çure
gratiaren domuac

Guero erran ciñaroën
ni berriz jauts artean
hau bera eguiqueçue,
ene orhoitz penetan.

Hautçaz hacicodena
çorionez (coroënez) piztuco,
eta mende fin gabean
dohatsuqui bicico.

Gauça hura eguin çuten
apostolu Sainduec,
hura bera eguiten dugu
guc hequin ondocoëc.

Arren bada orhoit çaite
gutaz Ceru gorean
gu eguiten garen leguez
egun çutaz lurrean



Sacramendu Sainduaren gainean besta
berricotz berce canta.

Ea guiristiñoac, chahu
çatçue athariac
eta çarricara etcha
arrossa, eta liliac.

Heda etçatçue longa
churiac arroilletan
tapiceria ederrac
halaber paretetan.

Etche aitciñetan finca
catçue aldareac,
eta hetan ere insensu
ussain onez betheac.

Belhaurico iar caitezte
escoiñ, ezquer herrüncan,
ecen passatcera doha
Jaun handia carrican.

Egun berecia ohoi da
besta berri eguna,
Sacramendua ohoratceco
ordenatu çaicuna.

Ohora deçagun beraz
egun Saindu hunetan,
cantatcen tugula copla

haric haren ohoretan.
Jesus-Christo, candelaric
aitaren escuñean,
halaric aurkhitcen care
ostia barrenean.
Ossoan ossoa care,
bai ossoa partean;
cure gorputça ezta hausten
hura hausten denean.
Beguiaz estacusagou
orhe consecratuan,
esperantça dugu equiñ
caitugula ceruan
Orduan sacratuco,
ducu gure beguia,
añartean behar dugu
hartu patientia.
Halaric ascotan çare
aldarean aguertu,
Sinhetsgorrac nahiz fede
Sainduan confirmatu.
O Jainco Semea, çure
gorputz preciatua,
edireten dā hostia
non baita sacratua.



Oriente, Occidente
Ipphar, eta hegoan,
cembat ere aldare baita
mundu universoan.
Hartcaz guituçu Jaun ona,
creaturac barcatcen
çure odol sacratuaz
halaber edaraten.
Gueure faltaz dugunean
galdu çure gratia,
çuc itcultcen darocucu
hartcaz hura guztia
Mahaiña diocu mundu
guziari hedatcen,
dignequi recebitcera
bat bedera manatcen.
Onac, eta gaixtoac ere
hartcen dute orobat,
nola arguitcen beitaroe
iguzquia orobat.
Onec jatendute bere
arimaren onetan,
gaixtoec contra haren
daiñu, eta caltetan.
Banquet handiac dituzte

erregueec eguiten,
bere handigoac hetan
ditusté eracusten

Ihici billha darvé
guerla eguiten chorici,
eta ez Sosseguric utzten
itsassoco arrañei

Hequin banqueteceztute
hunequin ikusteric,
cerengatic ezbaitute
hec hazten arimaric.

Nectar, eta Ambrisiac
ohi ciren famatu,
hequien moianez ordean
ezta nior Saluatu.

Mamac cituen Sapore
Janhari guztienac,
mama Saindu hunec ordean
gratia guztienac.

Mamma ian cuten Juduec
hil ciren desertuan,
hau ian duten dohatsuac
bici dire ceruan.

O Janhari indarsua,
arren ene bicia



gogoan iduqui çaçu
goça artean gloria.

Bekhoquia aguertua
han caitut ikhussico
han darotcut ontassunen
esquerra itculico.

---

San thomassen copla Sacramendu
Sainduari.

Adoratcen caitut Jainco
beloz quericatua,
eta oguiaren formaz
gainetic itçaldua.

Hala caitçu curi ene
bihotça behératcen,
contemplatcean indarra
non baitcaio flacatcen.

Bista eta uquitcea
guztiz caitzquit trumpatcen
beharriez baicen eztut
hor carela sinhesten.

Sinhesten dut Jainco Semeac
erran duen guztia
ceren ez baita deus ere
munduan hain eguia.

Gurutcean chortci cen
choilqui Jaincotassuna,
baiñan harequin batean
hemen Guiçatassuna.

Biac sinhesten dudala
eta aithortcen chauqui,
ohoin onac galdetua,
galdetcen dut humilqui

Thomassec beçala eztut
çauriric beguiesten,
allabaiñan neure Jainco
çu çaitut confessatcen.

Equidaçu berretuaz
dohatan sinhestea,
eta esparantçarequin
cure onheristea.

O Jaunaren hiltcearen
orhoitçapen arguia
orhe goço eta esti
emaillea bicia.

Arren ene arimari
equioçu dohaiña,
cutçaz bici dadin; eta
bilha ezteçan ordaiña

O Pelicano, biotcez



jesus maitatceco a,
ceure odolaz chahu cacu
hutsez lohi gachoa.

Ecen cure odolaren
chortaric gutienac,
chautcaque munduaren
bekhatu cikhiñenac.

O Jesus-Christo estaliric
ikhusten çaitudana,
compliçaçu arren hambat
desiratcen dudana

Bekhoquia aguertua
egun batez ceruan,
ikus caitçadan claroqui
ceure thronu sainduan.

Azken Judicioaren gainean
canta Abendocotz.

Guiristiñoac, adiçaçue
berri icigarria,
jujatcera ethorrico
dela Juge handia

Lehen cerutic jautsi cen
mundua salbatceco
berriz ere jautsi behar

du haren jujatceco
Aingueru saindudac ditu
bidalduco cerutic,
mundu guztiaz trumpetaz
iratçartceagatic.
Hillec adituco dute
claroiñaren soinua
guztiec bibietaric
alchatuco burua.
Bilduco dire Josophat
famatuco landara,
hoberenac içanen du
bihotcean ikhara
Elkhar ganic aingueruec
dituzte berecico
onac eskuñera, gaixtoac
ezquerrera billduco.
Gaixtoac egonen dire
larri buruz behera,
Jugeari ez ausartez
chuchen beguiratceza.
Hurbil içanen dituzte
bere tentatçailleac,
hala nola patientec
burreu penatçailleac.



Marrasca eguiñen dute
mendi goren aldera,
mendiac, eror caitezte
othoi gure gaiñera.
Arren estalecacue
gure gaixtaqueriac
Jugearen aitciñean
daudecen ehortciac.
Justuac egonen dire
manera onhestean,
ainguerú beguirailleac
dituztela aldean.
Behar becala denean
arrimatu gendea,
ceruetaric jautsico
da orduan Jugea.
Maiestatez betheric da
Jautsico hedoiean,
hotzadar coloretsua
diduriquen batean
Ainguerúez içanen da
guztiac inguratúa,
bandera ekharte daela
miguel arkhangelua
Banderatçat du gurutce

saindua ekharrico,
hartan tormentatu cela
aditcera emateco.

Jarrico da Olibe heco
mendiaren gainean,
preparaturic bathuco
caion thronu ederrean

Gueře obren contu hertsia
darocu galdeguiñen,
ezta dissimulatceco;
han lekhuric ucanen.

Lehenic justuei çaio
arraiqui minçatuco,
eta unela solassa
hei daroë hassico.

O ene aitaren, eta
ene bihortcecoac,
cuec içatu carete
ene gogoracoac.

Ecen cuei caizquitçue
pobreac urricaldu,
eta ditutçue cuen
ahalaz favoratu.

Gosse ceñaric ciñioten
hautsi cuen oguitic,



eta egarri ceñari
eman cuen arnotic.

Billuz gorriac halaber
ditutçue beztituic,
fiñean etcuenari
cuenetic partitu

Catozte bada enequin
dohatsuen cortera,
seculaco placer eta
atseguiñen hartcera.

Guero gaixtoetara du
bisaia itçulico,
ceiña baitaroë guztiz
asserre erautsico.

Hassico çaio colera
handirequin minçatcen,
icialduraz bihotçac
daroztela bethetcen.

O gende madaricatu,
pietate gabeac,
ceiñi ezbaitcaiquitçue
urricaldu probeac.

Ordaiñez bada çoazte
seculaco kharrera,
urricaldu etçaizten

burrehequin artera.

Sententia eman, eta
Onac ceru gaiñera
Joanen dire, eta gaixtoac
ifernuco lecera.

Onac joan dire canta
eta errepiquetan
gaixtoac berriz marrasca,
eta auhen tristetan

O Jesus-christo mundua
iuiatceco duçuna,
eguiguedaçu onetaric
icatceco ontassuna.

Saindu guztiei othoitz amuru (humea)
Sainducotz S. Bernaten
predicuctaric atheratua.

Ser. Ultimo de omnibus sanctis.

Parabisu çabaleco
Saindu gloriosac (glorisoa)
urrical bequitzquitcue
othoi gure onducoac.

urrical bequitzquitcue
diotsuet lastimac,
ceinec baitarozquigute



hersten gueure arimac.

Etçarete Jaun onaren
cholqui adisquideac,
ceuen ontassuna gatic
baiña oraino gureac.

Cuec deçagozquitcue
gure peril handiac,
cuec gure ecin eguiñ
eta pena guztiac.

Ecen cuei natcaitcue
mintco o dohaisuac,
ceiñac ican baitçarete
gu nolá tentatuac.

Badaquit ainguera onei
gaiztela urricalteen
cuen baithan nahiz ordean
guehiago fidatcen.

Ceren ican baiçarete
lurrean gure berdiñac,
heçurrez, eta haraguiz
gu beçala eguinac.

Lekhuco dituguçuen
reliqua sainduac,
cein baitire aldaretan
gutçaz ohoratuac.

Hartacotçat o Saindu
guztien araldea
ceiñez ohoratcen baita
Jaun onaren cortea.
Eztetçaçuela ahantz
cuen laguntristeac,
nola Joseph, Pharaonen
guiçon esquer gabeac.
Aitcitic othoit caitezte,
o biotz berac, gutcaz;
Jauna eguin cen beçala
ohoiñaren othoitcaz.
Ardiets dieçaguçue
ahal favorea arren,
nola baitcarete miambro
Jesus-Christo beraren.
Atseguin har eçaçue
othoi gure ontassunaz,
guc hartcen dugun beçala
bihotcetan çuenaz.
Eztugu dudatcen cuen,
bethiere gurera,
arthatsu etçaretela
o Sainduac, aldera.
Ceren ezpaitçarete azken



gloriaz gocatuzen
non lehen cuen balsara
gu ere hel ezgaiten.
Continua eçaçue
othoi ardura hura,
cuen ondoan gu ere
igan gaiten ceruva.
Han Jauna lauda deçagun
guztieç elkharrequin,
hambat favore munduan
ceren daroçun eguiñ.
O propheta, apostolu,
martir, eta Virginac,
emplegatçaçue gure,
gatic ahal eguiñac.
Ceruetan baduçue
Jauna bailhan podore,
ardiestecotçat cuen
maitencat favore.
(H)arren bada ceruetaco
burgessen compaiñia,
ardietz dieçaguçue
esque gauden gratia.
Çuri Jaunaren ondoan
esquerrac itçultceco,

ceren içan caituquegun
cerucan ararteco.

Purgatoriotaco arimentçat othoitça
amuru saindu biharamunecotz.
Jauna, urrical bequizquitçu
arima desfuntuac.
purgatorioco suan
ondicoz penatuac.
considera çaçu hequien
indar guztiz flaccoa,
eta suaren tormenta
cein pairatuzcoa.
Khar bicia sartzen çaie
sustantian barrena,
penac athera racitzen
daroëla auhena.
Eztecaçula permetti
guehiago han dauden,
aitcitic athera içaçu
othoi lehen bai lehen.
Curi satisfactione
eguiteco indarzic
aithor dugu creaturec
eztutela asquiric.
Contenta çaite(a) othoi



soffritu dituztenez
aitcinera guehiago
usatu gabe penez.
urrea(c) suac duela
badaquigu purgatzen
baiñan bercela arimac
purga etçatçu arren.
Bartha dietcetçu pena
hobenac mereciac;
hala aurkhitu dire
purgatuac guztiac.
Ceronec ikhusten tutçu
nola lece beltcean,
pulumpatuac daudecen
kharbicien artean.
Carcela icigarrian
dauda hagorandurie,
bere libratceco ecin
daiditela abraric.
Errecibietçatçu othoi
gure suffragieac,
ceiñac munduan baicare
hequien ondocoac.
Labur dietçu, Jauna,
arren bere epphea

eta muga onez eracuts
ceure beguitartea.
Eguin dieceçu, Jauna,
othoi favore hura,
asco berceri ia eguin
dioçun eredura.
Guztiz ere eguieçu
guri aitciñecoëi
ahaide, adisquide, eta
berce gaineracoëi.
Issur dieceçu ceure
gratiaren ihintça,
su beroaren diecen
iraungui kharborthitça
mañatçatçu othoi hequin
aingueru guardiac,
ekhar dietceten bere
librantçaren berriac.
Eta dietçaquitçuten
presenta aitciñean,
paguric lauda caitçaten
Dohatsuen artean.
Guri ere eguiqueçu
laster favore bera,
baldin erortcen bagare



laceria berera.
Gue ere hequien balsan
cu lauda caitçaqueçun,
ceren haimberce favore
eguin daroqueçun

liburutcho hunen hirur-
garren partea. Jaincoaren eta Sainduen
ohoretaco canta batçuc orenen guisa.
Jaincoaren ohoretaco cantac orenen
guisa asteco egun guztietaco bana.
Jaincoaren orenac gutçaz duen ardurarren [artharen]
gaiñean Igandetacotz.
O Jainco, ceiñac baituçu
gutçaz artha handia,
adiçaçu othoi ceure
orenen eresia.

Cure ordenantça saindux
irauten du egunac,
elkharri aldi equiten
har eta gau illhunac.

Vrthearen inguruac
cu benedicatcen çaitu,
sassoiñac chuchen ekharcen
ceren baitiotçatçu.

Tormenta eta haiceac
cuc ditutçu ematcen,
itsassoari cuc bere
mugarriac ifintcen.

Iguzquia cuc itçultcen
darocuçu goicetan:
harc beguiac arguituric
has gaitecen lanetan.

Akhabatu duenean
guero bere cursua,
guerriçatcen darocuçu
har deçagun pausua.

Ordanez darozquigutçu
içar chekeac pitzten
gau belceco illhunbethan
hetçaz guida gaitecen.

Gure gatic Jauna, eguiten



ditutçu hauc guztiac,
bethi erne ditutcula
gure gaiñean beguiac.

Esquer bada eta aithor
ducula Jaun handia,
ceren hain arthatsua den
cure provindentia

Sainco bat denari bere perfectioneen gaiñean orenac. astelehenecotz.

Iongoico bakhotcha
cantatcen lutçure orenac
arren entçun eçatçue ceure
laudorio çucenac

O Jaun handia, ceurenez
duçu ceure içatea
nihoren ganic içatu
gabe lehen hastea.

Halaber eztuçu finic
nihoiz ere içanen,
aitcitic duçut bethico
demboretan iraunen.

Lekhu guztiac ditutçu
bethetcen essentiaz,
presentiaz, eta ceure
ahal guztiz handiaz.

Ceure cuhurtciaz duçu
mundua gobernatcen,
non escas dela deus ere
ez baita ediretcen.

Karitatez bethea da
cure bihotz noblea,
ecen ceure carguz hartcen
duçu emachurcha probea.

Bide gaberic eztuçu
niola ere laudatcen
aitcitic çucenac duçu tutcu
gueienic precatcen.

Fiñean eztu aurkhitcen
onic creaturetan,
non perfetquiago aurki
eztadin çure baithan

Arren bada perfectione
guztien itsassoa,
Çaren bethi ene iabe
eta habe sendoa.

Hirurtassunaren orenac astearte(ra)cotz,
(ca) eta trinitate sainduaren igandecotz

Hirurtassuna, çure tut
erran gogo orenac,
arren entçun çaçu othoitz



bekhatorossarenac.

Aita, Seme, Spiritu
baitçare Sacratua,
cuez ossatcen da Corte
Sainduco conseillua.

Hirur presuna carete
baiña Jainco bat cholqui
hain ondo eta adarrac,
nola cuaitz bat bethi.

Cuetaric bakhotcha da
cuhur eta iaquintsu:
bata bercea becambat
handi eta indarsu.

Merci onez caituzte
ainguerue laudatcen,
Saindu, Saindu, eta Saindu
darotçuela cantatcen.

Cu ere orobat gare
eguitera obtenitu, obligatu
ceren baitugu ontassun
asco errecibitu.

Ecen cuc gaitutçu, aitha
athera eztcussetic,
eta çuc Semea queure
libratu etsaietic.

Cuc berriz Sanctificatu
gaitutçu Spiritua,
cordun gure laudatcera
cuen billkhu Saindua.

O hirurtassun mundua
favoratcen ducuna,
arren iguçu favore
bethi, escas duguna.

Jainco aitaren orenac Asteazkhenecotz

Jainco aita, laudatcera
noha cure icena ene
adi çaçu othoi ene
ahalen cantarena.

Cazpi egunez cinduen
eguin mundu ossoa,
astelehenean ceru
lur, eta itsassoa.

Astehartean halaber
hats harceco airea,
guero ceruaren contra
den Suberotcaillea.

Hasteazkhenean lurra
cinduen berreguindu,
belhar, eta culhaitz ferdez
hartaracotz beztitu.



Orceguneàn cintuen
piztu arguicaguiac,
iguzqui, illhargui, eta
içar chehe guztiac

Orcilarean cinduen
itsassora beàtu,
eta iquericalari
arraiñac han sortu.

Egunberean cintuen
creatu hegaztiñac,
cein cerñu ere motazco
emanic canta ariñac.

Larunbatean cintuen
moldatu larre abreac
eta adam, eta eve
buruçagui gureac.

Gauça hauc cintuenean
sei egunez obratu
guero cinduen en igande
egunean pausatu.

Arrenbada Jainco Aita
gaucen creatçaillea,
favora naçacu ceure
creatura feblea(c).

Jainco Semearen orenac orcegunecotz
eta haren besta gustietacotz.

Jainco Seme enegatic
guiçon eguien ciñena,
ecin bihur dieçaqueçue
laudorio çucena.

Guiçonaren obra gabe
cu concebitu ciñen,
eta eguberri gauean
bethleenen Sorthu ciñen.

Cortci garren eguneán
ciñen circumcisatu
handic Sarri erreguec
humilqui adoratu.

Jaioz queroztic berrogoi
egunbaten buruan,
burassoëc presentatu
cinituzten templuan.

Handitu eta Juduac
citcäizquitçun bekhaiztu
inbidiaz ciñituzten
gurutcera alchatu.

Hiltceco vezperan eguiñ
cinduen othuruntça,
apostoluei ianhari



eman ceure gorputça

Bazco eguneán piztu
cinen hillen artetic,
ceruetaco bidea
arimei libratuçic.

Saluatore eguneán
igan ciñen cerura,
Juiatcera ethorrico,
care berriz mundura

Aitaren aiteiñean,
O Jainco Semea, arren
caren ene ararteco
hestura eta menean

espiritu Sainduaren orenac orcira-
lecotz eta Pentecoste egunecotz

Spiritu Saindua, cure
aipphatcen tut orenac,
arren entçun catçu ene
Suspira eta hauhenac

O amudio Saindua
cure da ethorquia,
aita, eta Semearen
baitharic ethordia

Karitate handiz çare
gure gana bethea,

cuc bidalcen darocuçu
premian favorea.

Cure bihotz triste çuc
ditutçu consolatcen
ici aldura handitan
cuc kharrez animatcen

Hala animatu cintuen
apostolu Sainduac,
hala martir Jauna(c) gatic
bicia fiñituac (fiñatuac)

Cuc halaber escolatcen
duçu gure mihia
erreguec, eta princei
nola ihardats eguia

Cure baitharic ditugu
carpi dohaiñ hautuac,
cure baitharic hamabi
pare gabe fruituac.

Elicama Sainduaren,
cu care pillotua,
cu christau devot guzien
habe eta Sustengua

Arren bada Spiritu
amudioz bethea,
iducaçu ene gana,
ceure karitatea.



Ama Virginaren orenac larumba-
tecotz eta haren besta buruetacotz.

O Virgina bekhatore
guztien favorea
adiçaçu othoi ceure
orenen ahairea.

O Jongoicoaren ama,
cu ceroni bakharric
gatçatu ciñen (çiçeu) adamen
(fulten) falten calten) cutsu gaberic.

Sorthu ciñen ekharriric
mundura bozcario,
ceren cure ganic behar
baitcen Messias iaio.

Burassoëc presentatu
cinituzten templuan,
hirur urthe eta erditara
heldu ciñen orduan.

Handitu eta bihurtu
ciñen nazarethera,
harat ethorri citçaitçun
Gabriël Salutatcera.

Handic Sarri guero ciñen
Joan mendiac barrena,
ikhustera elizabeth.

ceure cusin maitena.
Erdi ciñenean eguin
berrogoien buruan,
leguearen complitceco.
Sarthu ciñen templuan.
Guero ethorri cenean
cure azkhen orena,
Jaunac altchatu cintuen
ceruetan barrena.
Arren bada Semearen
eskuñean çaudena
haren gana çaren bada
ararteco chahuena.
Sainduen orenac hequin bestetacotz
apostoluen bestetacotz.
O apostolu saindua,
ceure orenetara
beharria othoi makhur
eçaçu cantetara
O Saindu obedienta
Jesus onac deitcean
batheletic ilkhi ciñen
laster haren hitcean.
Ur barterrean utcirie,
Sare eta Sediña,



encutera aviatu
ciñen haren doctrina.
Haren (haiñ) escola sainduan sarri
eguiñ ciñen iaquintsun,
ceren baitcinduen dotor
adituena entçun.
Eta ceren haren gatic
cinen onez billeci
apostoluen lerrora
cinituen hautetsi.
Hala lehen cinelaric
urzean arranteaille
guiçon bassatuen eguiñ
cintuen atcemaille.
Haren doctrina cinduen
munduan predicatu,
haren amoreacgatic
ceure bicia galdu.
Ceruetaco bidea,
cinduen iracatsi,
cure exemplu onari
asco berce iarraiqui
Arren bada eliçaren
harron guztir sendoa
ceruetan çaren othoi
ene ararteçoa.

Evangelisten bestetacotz.

Evangelista saindua,
cuc othoi ceurecnac
ene ahotic entçun çatçu
ahaire orenenac.
Notari leiala Jesus
onaren hitz eztiac
cuc utci cinarozquigun
escribuz ecarriac.
Ceure odolaz cintuen
azkenean firmatu,
noiz ere baitciñen hequin
ukhatcera ertchatu.
Apostoluec laudatu
cuten cure nequea,
haren gogoan hartcera
exhortatu gendea.
Ceronec ere cinduen
gendetan predicatu,
paperean baitcinduen
cer ere escribatu.
Guztiz quezchatu cinen
obran atheratcera,
exemplu on emateco
infidelen artera.



Hala complitu cinduen
Jesus-Christoren errana
hitcen arabera behar
cela athera lana.
Geuça bera eguin cuen
berac ere lurrean,
popluari predicatcen
hassi citcaionean.
Arren bada ceure hitcen
obretan emaillea
ardiats dieçadacu
halaco faborea.
Martiren bestetacotz
O martir handia, cure
heriotcearenac
ene ahotic entçun çatçut
haren urhoitca penac.
O ezcutari valenta,
cure bihotz handiac
mezpreçatu cituen peril
icigarri guztiac.
Tyrannoac erakharri
eta bere aitciñera
essaiatu cen leguenaz
curi utkharaciteera.
Behin cerotçun hitz eder

eta onez lausengatu
eta guero heriotce,
cruelaz dechidatu
I Khussiric etcinela
hitcetara behatcen
asserreric tormentara
alcharaci cintuen.
Han penari cintuen
ecin erran guisara,
ertchatcen cinituela
bere Secta gaiztora
Allabaiñan iguriqui
cinoën tormentari
eta hartan errendatu
arima ceruari.
O martir animotsua,
cure odol issuriac,
eliçama bistatcen du
nola arrossa gorriac.
Arren bada irabaci
duçun credit handiaz,
favora naçaçu othoi
behar dudan gratiaz.
apphezpicu sainduen bestetacotz
O apphezpicu saindua,
cure bici prestua,



laudatcera noa, adi
çaçu ene cantua.
Bortcha handiz cerotçuten
hararaci cargua,
cergatic baitcinaquien
cela carga pissua.
Allabaiñan descargua
unqui equin cinduen,
arimequin progotchua
cinduela bilhatcen.
Ciñelaric dignitate
handian eçarria
halarican gobernatcen
cinen nola chipia.
Munduari emaiteco
aguerriqui exemplu
carguari elçaiola
nihor behar handitu.
Ceure doctrinaz cinduen
barzcatcen arthaldea,
bici onaz animatcen
verthutera gendea.
Avariciaric etcen
cure baithan aurkitcen
ecen probeac cintuen.

ceure athetan hazten.
Fiñean arguitu cinduen
bici onaz mundua,
hala nola illharguiac
gau illumbez beltztua (belhatua)
Arrenbada verthuteen
mirail guztiz arguia,
ungui bicitceco ardiats
diçagaçu gratia.
Doctor Saindueen bestetacotz.
O Doctor ungui ikhassia
cure oren Sainduac
cantatcen tut entçuntçatçut
othoi hequin tonuac.
O Doctrinaren çucia,
adin beheretaric,
ceure etchetic ilkhi cinen,
escolatcea gatic.
Debochei hassi cinaizten
haurdanic appartatcen,
eta letia Saindutara
ceure gogoa echatcen.
Eliça eta escolara
cindaquien bidea
nihora ere bercetara



etcen urrats curea
Adinetara noicere
guero heldu baitciñen
gendartean hassi ciñen
ikhassiac bantacen
Gaixtoën contra cinduen
predicatcen equia,
edo probe, edo aberats
etcinduen antsia.
Consolatcen cinituen
presuna nekhatuac,
baita mehatchacen bere
biciotan Sarthuac.
Nendi goretan Seiñale
den becala hiria,
hala munduan cen cure
Seiñale cuhurtcia
Arrenbada eliçaren
lampa guztiz arguia,
argüiçaçu othoi ene
arima nahassia.
abbadeen bestetacotz
O asco fraide deroten
aita burucaguia,
ceure orenen entçuteco

har eçaçu astia.

Cure prestutassuna cen
hambat aldiz frogatu,
non lagunec baitcintuzten
naussitçat altchatu.

Erreguela complitceco
ciñen diligentena
iguzquia planetetan
nola ibilltçaillena.

Lehenic jaiquitcen ciñen,
eta etciten azhhenic,
behar guztietan ciñen
aurhhitcen aitcinenic.

Buruio perequien nihor
etcinduen manatcen,
baiñan hitçaz baiño lehen
exempluaz atcartcen.

Arguitcen cintuen ceure
bici onaz fraideac,
iguzquiac hala nola
arguicagui cheheac

Avantaillaric deusetan
etcinduen galdetcen,
den chipienarequien
baina aitchitic berdintcen



Hargatic çure gaiñean
Cedutçaten beguiaç,
verthuteari cerraizcon
fraideac idequiac.

Arren bada compaiñia
Saindue guidaria,
cerura guida nacacu
bekhatorez handia.

Confessoren bestetacotz.

O çori onez bethea
cuc othoi ceureenac,
ene ahotic entcuntçatçu
canta verthuteenaç.

Hirur etsai herratsuec
cerotçuten guerla eguin
Jaunaren leguean nahiz
nombaitic huts eraguin.

Sathan gaiztoa cen bere
etsaiatu aldetic,
mundua beretic, eta
haraguia beretic.

Allabaiñan herensugue
üigarria, ceinac,
etçuen aurhhitu nondic
cu assequi eztenac.

Curi gueldituc citçaitçun
victoria ossoa
hirur etsaiei ahalque,
eta mesprecioa.

Hargatic Jaunac cintuen
gloriaz khoronatu,
hargatic eman Sainduen,
hartean lekhu.

Munduan ere içatu
cintuen ohoreac,
ohorez altchatu ciren
reliquia cureac.

Cure thomban ere ciren
eguin miracuilluac,
hebaiñac chuchendu, eta
bai arguitu itsuac.

Arren bada titcha onean
iaio ciñen Saindua
bethi egon caite nitçaiz
ceruan orhoitua.

Virginen bestetacotz

O Virgina Sacratuac,
cuen oren Sainduac,
cantatcera noa, entcun
tçatçue ene cantuac.



Cuetaric Jaunac equin
cituen burassoac
cuetaric adisquide
eta bere urcoac.

Virginac lo eguin çuen
Iaun onaren alçoan,
Virginac egotu ciren
gurutcearen ondoan.

Cuec içatu çarete
munduco çuhurrenac,
cuec Jauna puchantaren
martiri handienac.

Sala urrerco horretan
passaiatcen denean,
lehenac cuec carete
bethi haren (hatean) aldean.

Cuec cantatcen duçue
beregainqui airea,
cein ezpaita bere nihorere
possible cantatcea.

Cuec ceruan tutçue
cadirac hautuenac:
cuec gradu, eta icen
guztien ederrenac.

Cuei eman çaizquitçue

bulute urrezcoac,
cuei escuetan palma
eciñ ihartuzcoac.

O Virgina Ceruetan
ainguerunen hurrenac,
çareten guri favore
equitera lehenac.

Alhargun Sainduen bestetacotz.

O alhargun dohatsua
arren othoi orenac,
ençunçatçu gomendatcen
curi çaitçunarenac.

Jaunac beregana deithuz
queroz cure Senharra,
tortolla becala bici
içan ciñen bakharra.

Munduco vanaloriac
cinituen largitu,
eta ceure gogoëtac
ceruetara alchatu.

Presunac devotequin
cinduen conversatcen,
monesterio, eta eliça
Sainduac bicitatcen.

Barur eguiñac cintuen



beguiratcen Sainduqui
austeritatez gorputça
gastigatcen gogorqui.

Cure etchean gau, eta egun
Jauna cen laudatua
ciduriela Serora
devoten commentua.

Vmeac haci cintuen
Jaunaren beldurrean
Seinioralei ostatu
eman ceure etchean.

Presuna Sainduei viñac
ciñarosten chautcen
carcela, eta ospitaleac
karitatez ikhusten.

Arren Andre alharguntça
Sainduqui eramana,
ardiats dieçadaçu
fiñ on baten dohaiña.

edo cein emazte Sainduaren bestetacotz

O Andre Saindua, arren
ceure vertuhutzenac
ene ahotic entçunçatçu
ernequi aipphamenac.

O andre prestua, mundu

Çabalean cureric
gaitz liçate aurkhitcen
emacume pareric.
Vme, eta sehiequin
cinharduquien arren, (arden)
egotu ciñen Jaunaren
bethi leguean chuchen.
Erguelqueriec itsutu
cinaroen bequia
eta vertutera eman
ceure gogo guztia.
Cerori ciñen etcheco
beharretan nekhatcen,
ceronec cerbitcariei
exemplu on ematen.
Escua cabaldu ohi
ciñaroëen probeei
guztiz ichill, eta ahalquez
ecin ausartatuei.
Entcinduen viciorie,
ceure etchean soffritcen,
sehiac, eta umeac
berdinqui corregitcen.
Fiñean Jaunaren cinduen
bihotcean ardura:



hargatic triumpharequin
igan ciñen Cerura.
Arren bada Andre Saindu
munduac laudatua,
ceruetan caren ene
artecó hautua.
ainguereuen ohoretan Jaundoni
Michelecotz.

O ainguerù Saincoaren
ezcutari maiteac
ençun etçaçue othoi
gure coplen aireac.
Ceruetaco (naueau)
bataïlla eman cenean
cuec aurkhitu ciñeten
Jaunaren favorean.
Luçifer osticaturic
bere jarraitunequin,
cuec guelditu ciñeten
garai gustiarequin.
Jaunac arramuz cituzten
khoratu buruan,
ceren aurkhitu ciñeten
haren alde guduan
Bequi artea orduan

cerotçuen aguertu,
bere gratia Saindüan
orduan escolatu
Gueroztic tutçue haren
eguiten beharguiac,
gueroztic complitcen haren
embachada guztiac.
Cuec ditutçue mundu
eder hunen carguac,
cuec itçultçen ordena
eder batez ceruac.
Cuec dadutçatçue lau
elementac escutic
batac bercea athera
gabe bere lekhutic.
Cuec ditutçue haice
muthiriac ematcen,
itceac, età marea
cuec neurriz eguiten.
Cuec guidatcen tutçue
hedoi, eta Saincoac,
cuec aldaratcen aire
gure caltetacoac.
Lurreco fruituac çuec
ditutçue guardatcen,



bere muguetan urriez
eta ihintcez frescatcen.
Cuec duçue ardura
lar abre guztiena,
baiñan beregainqui guiçon
penaz bethearena.
Cuec çaituztegu guarda
gueure Saihetsecoac,
cuec Jaunaren aldera
gueure arartecoac.
Gaixtaquieriatic çuec
guituçue hastantcen,
cuec ontassunetara
ahalaz inspiratcen.
Gurequin bethi çaudete
bici garen artean,
purgatoriotan ere
consolatcen kharrean.
Ezcaitucue quitatcen
behin ere fiñean,
Jaun onaren aitciñean
presentatu artean.
Piztten garenean ere
Cerura igateco
hedoietan gora çuec

gaitutçue guidatuco.
Cuen balsan laudatuco
dugu Saluatcaillea,
cuiequien iraganen
Seculaco mendea.
Arren bada Saihetseco
gure guarda leialac,
urrical bequirçue
gure indar herbalac.

---

liburutcho
hunen laur
garren partea
Saindu particular batçuen ohoretaco
çantez

Jaun doni Jauniren ohoretan cantea.

1 Jaun doni Jauniren jaiotcea.

Jaun doni Jauni propheta
guztien ohorea,
adiçaçu othoi ene
cantaren ahairea.



Jaunac hautatu cintuen
bere aitcintguidari,
eta bere ethorceco
bideen apphaingarri.
Cure aitciñean etcen
içan amen Semeric,
cu baiño famatuago,
eta handiagoric.
Hala içan ciren çure
Sortceco Seiñaleac,
miracuilu handitz, eta
obra handitz betheac.
Sorthu ciñen aitcinetic
phophetec cantaturic,
burasso Steril, eta
Ia çahartuetaric.
Ainguerru batec civtçon
cure aita jaunari,
insensatcen haricela
berri on hauc ekharri.
Zakharias allequera
caitez bihotcean,
cure othoitça ençun da
ceruaren gaiñean.
Seme bat içanen duçu

ceiñaz handiagoric,
oraino sorthu ezbaita
nihor emaztetaric.
Eta nola (eguin civēn)
ahal duquet semea?
ethorri denaz gueroztic
enen azken mendea?
Aingueru onac civēn
orduan ihardetsi,
Zakhariaz behar ducu
gauça hori sinhetsi.
Eta cergatic baitcare
duda horretan sarthu,
hau (gau) guertha artean mihia
captibatuco caitcu
Cure aitari citçaion
captibatu mihia,
gauça arrotcaz espantatu
mundu herri guztia.
Ceure amac concebitu
cintuen handic sarri,
berria entçunic Virgina
ikhustera ethorri.
Bi cusinec elkhar aiten
maitequi bessarcatu,



cuamaren sabelean
bozcarioa saltatu
Virgina ama egotu cen
cure amaren aldean,
handi eta cutcar
erdi cedin artean.
Erditcean ere cen hazen
bururquitan aurkhitu,
Iaiqui artean bere escu
sainduez cerbitcatu
Cure aita bozcarioz
bethe cen bihotcean:
ainguerуac erran leguez,
cu sorthu cinenean.
Galdetu cioten, ea
nola deithuco ciñen.
errepustaric ordean
ecin bihurtu cuen.
Tinta, eta papera khiñuz
cituen erakharri,
eta deithuco ciñela
Joannes cuen ecarri.
Mihi lothua citçaion
berehala libratu,
eta esquerrac ciotçon

Jaun onari bihurtu

2 Jaundoni Jauniren bicia

Haurtchoa cinela ceure
etchetic ilkhi ciñen,
eta mortuac barrena
bicitcera joan ciñen.

Camelu larruz beztitu
ciñen guztiz gogorqui,
larrapotez, eta bassa
eztiz haci pobrequi.

Escu artean ur clara
edan ohi cinduen,
eta arroquen artean
lo eguiten cinduen.

Mundu guztia cen çure,
bicitceaz harritu,
hierusalem bateraiño
çure fama hedatu.

Synagogatic Dotorac
citzaizquitcun ethorri,
eta çu Messias ciñen
ikassi nahiz berri.

Jauna, çu çare Messias
cerotçuten galdetu
baldin çu baçare othoi



garbiqui erraguçu
Errepusta jaquintsunei
bihurtu ciñaroën,
Jaun onaren ohorea
cinduela alchatcen.

Jauna, eznaiz bekhatuen
garbitcaille bildotsa
ni naiz desertuan oihuz
dagoënaren voca.

Cuen artean dabilla
eguiazco Messia,
ceiñetan (ceiñian) ecagutcen baitut
neure burucaguia.

Ni haren muthil chipibat
baicen eznaiz, ceiñaren
digne ezbainaiz lechatceco
capata lokharrien.

Ene ondoan heldu
nibaiño lehen cena,
erregue, eta monarkha
guztietaco lehena.

Hunela cinaizten dotor
ikhassei minçatu.
Messias lurrean cela
cintuen seguratu.

Berce prophetec aguindu
cuten cholqui mihiaz
cuc orđean eracutsi
hurbilletic erhiaz.
Berac ere çu cintuen
bere apphetçat hautatu
ecen Iordango ibain çuc
cinduen bathaiatu.

### 3 Jaun Doni Jauniren heriotcea.

Desertutic ilkhi ciñen
gendearen artera
predicu onez Jaunari
bidea apphaintcera.
Hierusalemen erdian
cinduen predicatu,
bere bicitce gaixtoaz
Herodes meharchatu.
Herodessi citcaizcun
gaitçitu cure hitçac,
bilhatu cituen çuri
asperceco atticac.
Allabari civën çure
buruac escaraci,
herodessec cuenean,
cortean dantçaraci.



Amac plat batean eman
cuen, eta mihia
cilhatu civën, ceren
erran çuen eguia.
Disciplulac gorputça
alchatcera ioan ciren,
eta thomba ederrean
ohorez eman cuten:
Orain glorioso çaude
ceru icarratuan,
mairu berec ohoratcen
caituztela munduan.
Cure ohoretan tugu
guc ere pitzten suac,
arren onez errecibi
tçatçu gure votuac.

### Jaun Doni vichintcho Martir eta apphezpicu eta latus haren lagunaren ohoretan canta.

O Martir animotsua
cure bihotz handiac,
laudatcera gombidatcen
ditu gure mihiac.
Icena cinduen leguez
garaitçaillearena.

hala garaitu cinduen
furia Sathanena.
Eliçaren çu içatu
care lampa arguia,
cu gentil, eta pagano
itsuen guidaria.
Bizcaya, eta lapphurdi
cuc cintuen arguitu,
idola falsoec ceiñac
baitcituzten itsutu.
Akhitzco hirira ere
fedearen cucia,
lehembiciric ekharri
cuc cinduen arguia.
Plaçaren erdian hassi
ciñaizten predicatcen,
ceure hitcac cintuela
miracuilluz frogatcen.
Guztiarequin apphurrec
hec cituzten Sinhetsi,
handi aldeec aitcitic
cinituzten gaitçetsi.
Tribunalaren oiñera
furiaz ioan cintuzten,
enganari bat cinela



accusatu cintuzten
Iugeac cintuen asco
gauçaz interrogatu,
atkhenean ceure fedeaz,
ukhatcera ertchatu.
Errepusta ciniuen
bihurtu animosqui,
eta ceure Sinhetstean
bethi egon fermuqui.
Ikhussiric etciñela
haren gana behatcen,
heriotze cruelera,
condemnatu cintuen.
Halaber çure gorputça,
larrera egotztera,
ordenatu cuen, chori
gosseen bazcatcera.
Heriotcea cinduen
patientqui Soffritu,
eta ceure hiltçailleei
gogo onez barkhatu.
O Martir animotsua
çure patientiac,
ventcutu cituen burreu
odolsuen furiac.

Alexandreac eztire
curequin comparatu,
Cœsarac ere ez caizquitçu
urruititic hyrbildu.

Lœtus cure lagunac çuen
içatu çorthe bera
hura ere condemnatu
heriotce berera.

Bihotz handitz bessarcatu
cuen martirioa,
eta beguitarte onez
ikhussi herioa.

Ecin erran guisa çuten
hura ere tormentatu,
doloretan etcitcaion
animoric faltatu.

O ezcutari valentac
herio mota batez,
ceuen arimac cintuzten
errendatu ohorez.

Aingueru onec cituzten
alchatu bessoëtan,
eta christauec gorputcac
eraman gau hutsetan.

Lekhu gordean cituzten



ohorezqui ehortci,
pagano cruelec nihon
etcetçatençat aurkhi.

Gueroztic egotu ciren
ondoco mendeetan,
nihorc ere iaquin gabe
thomba ehortci hetan.

Iongoicoac nahi içan
cuen azkenean
hequin ohorea aguer
cedin gende artean.

Othoitcean cegoëla
nescato devot bati,
gorpuz Saindu hec non ciren
cioën iracatsi.

Christauec cituzten thomba
hetaric aldaratu,
eta ohorezco lekhu
batetara alchatu.

Eliçat bat eguin çuten
hequin (hequen) icenean,
eta reliqui Sainduac
eçarri aldarean.

O Saindu gloriosoac
cuen heçur goitiac

ohoratcen tugu, nola
cuen azken bahiac
Cuen figurac ditugu
elicetan altchatcen,
escaldunec cuen besta
Saindua iduquitcen.
Arren bada Escaldunen
patroiñ gloriosoac,
careten ceruan bethi
gure arartecoac.

San francessen ohoretan canta.

O San Francez verthuteen
mirail guztiz arguia,
adiçaçu othoi ceure
devoten confraria.
Cure favore sainduen
heldu gare escale,
eguin gaitçatçu othoi ceure
merecietan partale
Ciñelaric Italia
herri famatucoa,
eta berecigui Assissa
deitcen den hiricoa.
Guztiarequin cinduen
mundu hunez ukhatu,



halaber ceure herrico
atseguinac quittatu.
Guehiago ciñelaric
aberatsen umea,
eta hequin ontassunen
primu, eta iabea.
Halaric cinduen ceure
primeca mezprecatu,
eta ceruco ontassun
fin gabeez hautatu.
Oraiño ciñaudecela
ceure aitaren etchean
probeei ahala ematen
ciñaroën athean.
Burassoac citcaizquitçun
sarri hassi bekhaizten.
hec nequez bilduac laster
cintuela banatcen.
Apphezpicua baithara
cinituzten citatu,
hondatçaillebat ciñela
aringui accusatu.
Apphezpicuac burasso
ceureen othoitcera,
condemnatu cinituen

primeçaz billuztera.
Gogotic ciñen munduco
ontasunez billuci,
tresnac ere burassoën
oiñetara iraitci.
Hunela erran ciñoën
ceure aita gogorrari
orain hobequi erranen
diot Jainco aitari.
Gure aita ceruetan
gloriosso carena,
cu çare ene aita, eta ez
lurrean bici dena.
laurean
Esparantça guztia dut
cure baithan ematen,
favora naçaçu neure
ondicoëtan arren.
ondiocoëtan
Berehala guero ceure
char bat cinduen iauntci,
eta socca pusca batez
ceure guerrian hertsi.
Jaun Doni Jauni beçala
desertura ioan ciñen,
Seraphin baten bicia
han eraman cinduen.



Gaua passatcen cinduen (cintuen)
contemplationetan,
eguna ere obraon,
eta othoitz devoletan.
Ceure gorputça cinduen
disciplinaz cehatcen:
tentatcen cintuenean
elhurpera etchatcen.
Oguiz eta urez ciñen
barur guehienean,
hala iduquitcen gorputça
bere eguin bidean.
Travailluac etcintuen
behin ere icitcen,
aitcitic handienari
aitciñera ilkhitcen.
Bide luceac passatcen
ciñituen orthutsic,
lur gogorraren gaiñean
etciñen (etciten) unhaturic.
Pobrecia cinduen nihorc
ez beçala preçatu,
ecen limosna cinduen
errentaçat hautatu.
Jesus-Christoren bicia

imitatu cinduen
bere cauriez hargatic
Seiñalatu cintilen
Mundu gaizqui bician cuc
cinduen reformatu:
Laterango elica cuc
erortcetic guardatu.
Cure gatic utci cuen
Jaunac mundu gaixtoa;
bigarrenean hondatu
gabetaric Salusa.
Esparantcarequin ecen
cure exemplu onac,
onera gambiatuco
cituela guiçonac
Barkhatuaz etcitcaion
Jaunari urriquitu;
ecen cu ciñela causa
asco cen convertitu.
Eznuque Seculan eguin
o San Francez, cureac,
chehero condatu nahi
bannitu berri gureac
Etciñen content cerori
Sainduqui bicitceaz:



berceac ere eraguin
nahi ahal antceaz.
Altchatu cinduen ceure,
ordenaren bandera!
asco gende arrimatu
cen haren itcalera.
Guztiac cintuen hirur
partetara bereci,
handic ceure confraria
hirur Sainduec hassi.
Comarica guztietara
laster ciren hedatu,
berce ordenac guztiac,
nombre handiaz chitu.
Ecen ceure ordenan da
conventu guehiago,
berce ordena Sacratu
guztietan den baino.
Chipien ordena eman
cinionen icena:
allabaiñan guztietaco,
hedatu guehiena
Nola erro chipittotic
haritz miragarria,
airean gora alchatcen

baita guztiz handia.
Halaber cinen çu ere
urrunena hedatu
ciñelaric fraidetāric
chipiena deithatu

Aphezpicu Saindu, martyr,
Dotor, eta Virgina
cure ordenan icatu da
ecin conda dadiña.

Humilltassun ahantcia
cuc cinduen orhoitu:
parabisu çabala çuc
gende Sainduz publatu.

O patriartha handia,
cure lauduriotan,
ecin asqui mintça cinte
bicico egunetan.

Dateria da handia
ene ahala chipia:
excusa eçaçu othoi
ene indār gutia.

Arren çure biciaren
orhoitcapen onetan,
ene cargua iduqui
çaçu othoi ceruetan.



Halaber çuc ceruan
careten dohatsuac,
haren banderen azpian
ibilli Soldaduac.

Iduqui naçaçue othoi
ceuen gomendioan,
bici naiceno bandera (balderna)
cordoñ Sacratucoar (Sacra ucoan)

San Ignatio Lohyolacoari
esquerrac.

O Ignatio escaldun
guztien ohorea,
ceruetan çaren othoi
gure othoizquillea.

Quittaturic gurietaco
bandera urguilluac,
hautatu cintuen Jesus
onaren conseilluac.

Frances Xavier cençure
banderara ethorri,
ceiñ baitcinduen Indien
apostolu egorri.

Cure banderara ciren
bi anaia Heguiac,
aitonen Seme noblequi
Saureguian haciac.

Cure banderara oraiño
Aios Onaticoa,
cure banderara Anquieta
ohore berecicoa (bracilgoa).
Hauc guztiac ciren çure
natio noblecoac
çure hizcuntçaco, eta
çure bihotcecoac.
Cure banderara asco
berce cen arrimatu,
Faber, Laynea, eta Iaius
ez azkenac guerthatu.
Bidaldu cintuen munduz
mundu predicatcera,
fede iraunqui hurrena
ceure Sutic pitztera.
Hassi ciñen hitz Sainduaz
gendea convertitcen,
paristar laboriariac
nola asmatu baitçuen.
Hassi ciñen guerla eguiten,
Luther apostatari,
hassi bihotca arguitcen
infidel itsuari.
Escolaac cintuen barter,



guztietan idequi,
hetan garte errebessac
Verthutera iraiqui.
O Ignatio Sainduа
cure laudariosac,
gaitz licate condatcea
guiconaren ahoac.
Curi çordun caitcu Europa
Caluinec nahassia,
curi America, curi
barter capal india.
Curi oraiño çordun çaitçu
guiristiño berria
curi fiñean aurkhitu den
berce mundu berria.
Bereciqui ni naçaitçu
çordun, ceren, curean
daquidana ikhassi baitut
escola Sainduetan.
Orai guztiz berriroqui
ossassuna galdua,
ceren ican dudan cure
othoitcez cobratua.
Esquer itzulcen darotçut
ceure iaiot (iaiat) etchean,

lohyola Iaureguico
aldare aitcinean.
Arrenbada errecibi
cacu onen partera
ceure hiztcunçan bihurtcen
darotçudan esquerra.
Esparantcea hartan neure
bihurtcen naiz etchera-
Francia erresuma noble,
fronterraren aldera.
Adiu beraz Ignatio
o Saindu dohatsua,
ceruetan caren ene
ararteco 'hautua.

---

## Stabat mater

Ama dolores bethea
cein nigarres mainhatua;
gurutcearen aspian.
Semea han icaturic
odoletan hedaturic,
icusten aienean
Haren bihots dolorosa,



triste malenconiosa,
trincaturic cagoen.
Seme baroiz caren penac,
ecin conda ditesquenac;
cituela gogoan.
Ama haren bihots mina,
o pena handi hetaric equina,
erran ahal daiteque.
Cagoela nigarretan,
doloresco pena hetan;
icussiric Semea.
Nor licateque guiçona,
icussiric ama ona,
eta haren dolua.
Elegoque nigarretan
icussiric plainu hetan,
amarequin Semea.
Gugatic Salbatsaillea,
Jainco Jauna igorria,
icussi du cehatcen.
Doloresqui Semea,
Sabelean ecarria
eguin acabatcen.
Oy ama desolatua,
cein nigarres mainhatua,

gurutcearen aspian.
Oy ama desolatua,
çure gana amoratua,
nigar eraguindaçu.
Jesus dudan bihotcean,
ni naicen haren gracian,
othoi eguin ecaçu:
Cauri hec bihotcean,
partituric gurutcean,
ditudan nic eguiçu.
Semea Saunaren penetan,
ni gatic Suffrituetan,
partale eguin naçaçu.
Eguiçu nigar bedere,
Daguidan nic bethiere,
Vici naicen artean.
Plaṅus egon nahi nuçu,
çurequien placer baduçu:
gurutcearen aldean.
Virginaric ederrena,
andreetan gueihiena,
othoi mainta naçaçu.
Curequin itce eta,
doloresco caurietan,
gorde naçaçu.



hec bihotcean Sarturic,
amorios chilpüduric,
bici naicen munduan.
Cutas naicen deffendatu
othoi ama gomendatu,
asquen Sujamenduan.
Haren Jesus icussiric,
gurutceas libraturic,
dudan haren gracia.
Hartus gueros herioac,
othoi arima joingoicoas,
duen Parabisua.

DEN'-HALA.



andredena Mariari Othoitça
gaudeac.
Gaude Virgo mater Christi.

andre deña Mariari
hymnoa

Stabat mater dolorosa

228
229
230

---

orreguerren orationea
psalmoa

Exaudiat - - - - -

oremus

Quaesumus - - -

fina.